

UNI

BERTSITATEA



HAU

ASTE!

'Terra', lurrik ez dutenen ispilua

Sebastiao Salgadoren argazki erakusketa bihar amaituko da EHUKo Leioako Campusean

Irigo Olabarri • Leioa

Sebastiao Salgadoren *Terra* argazki erakusketak ikusteko azken aukerak izango dira gaur eta bihar, EHUKo Leioako Campuseko Liburutegi Nagusiko erakusketa aretoan. Argazkilaria brasildarrak bere Leica kamarekin ateratako irudietan Brasilgo *Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra* sortzeko dauden arrazoiak agertzen dizkigu.

Azken urteetan, Pertsiar Golkoko gerran bere argazkiek jaso zuten tratamendua zela-eta Magnum agentziarekin izan gorabeheren ostean, munduko miseria eta injustizia batzuen berri eman du Salgadok: pateretan Gibraltarko itsasartearen igoeraren duten afrikarrak, *Terra*-n agertzen diren lurrik gabekoak...

Liburutegi Nagusiko erakusketa aretoan jarrita dau-

den zuri-beltzeko argazkietan mina agertzen da gehienbat. Goldatzen duen lurra baino zimur sakonagoak dituen amonaren mina, akituta dagoelako poliziari aurre egitea erabaki duen nekazariarena, lanabesak eskuan hartu eta zerura jasoz protesta egiten duten lurrik gabekoena, haur baten hilketazuriaz lurperatzekotan dagoen familiararena... Hilketak behin eta berririo agertzen dira argazkietan, heriotza nekazari horien bizitzan etengabe present dagoen adierazgarri.

Bisitari gutxi

Iragan astean jende gutxi zebilen unibertsitatean, ikasleek ez baitute ohiko erritmoa hartu. Hori dela eta, erakusketa hasi zenetik —irailaren 27a— bisitatu dutenak ez

dira han dauden argazkiek inerezi duten beste pertsona izan. Bisitatzen dutenak, ordea, hunkituta geratzen dira. «Haurren argazkiek lilaratu naute gehien. Begi goibel-goibelak dituzte, eta ez diote irribarrerik egiten kamerari. Hilda eta aurpegia

odoletan duen gizonarena ere oso gogorra da», zioen Anderrek, bisitari urrietako batek.


Terra da abendua arte Leioako Campusean izango diren lau erakusketen artean lehenengoa. Ondoren Txotxongilo artegintza, Carmen Palomeroren *Denbora*, memo-

ria, nortasuna. *Elkarrizketak Rauschenberg*ekin, eta artista askoren arteko beste erakusketa bat izango dira. Horiek iritsi aurretik, hala ere, Salgadoren lanez gozatzeko azken aukerak daude nahi duten guztiak, gaur eta bihar.

PABLO S. QUIZA



UNIBERTSITATEKO



AGENDA

Antzerkia

Koribantes taldean sartzeko frogak Nafarroako Unibertsitatean. ■

Koribantes antzerki taldean sartzeko frogak egingo dira bihar Nafarroako Unibertsitatean, Gizarte Zientzien eraikineko 5. gelan. Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Edipo errege EHU. ■ *Edipo errege* antzezlan eskainiko dute urriaren 13an EHUren Leioako Campuseko Areto Nagusian, 12:00etan.

Jardunaldiak

Gazteak eta lan merkatua NUPen. ■

Gazteak zatitutako gizartean: lan merkatura igoeraren izenburupean jardunaldiak egingo dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan urriaren 14 eta 15ean, El Sario eraikinean.

Blondel eta teknologia jardunaldiak Nafarroako Unibertsitatean. ■

Blondel eta teknologia jardunaldiak egingo dira etzi, ostirala, Nafarroako Unibertsitateko Areto Nagusian.

Bestelakoak

Ikasturte hasiera Mondragon Unibertsitatean. ■

Mondragon Unibertsitateak ikasturtea hasiko du modu ofizialean urriaren 7an. Ekitaldia Arrasateko Amaia antzokian izango da.

Hitzaldiak

Budismoa hizpide Deustuko Unibertsitatean. ■ Matthieu Ricard monje budistak hitzaldia eskainiko du urriaren

13an, Forum Deustok antolatuta, Bilbon: *Budismoa norberarengan eta munduan eskuhartzeko modu bezala.*

Tesiak

Zahartzearen arazo ekonomikoak Nafarroako Unibertsitatean. ■

Nafarroako biztanleen zahartzeak dakartzan arazo ekonomikoak tesia irakurriko du gaur Pedro Ziordia Burundak Nafarroako Unibertsitatean, Castaños eraikineko 5. Gelan, 18:00etan.